

BALEIKE

266. ZENBAKIA. EURO BAT
2017ko EKAINA

www.baleike.eus



42 emakumek
hartu dute
parte aurten
Zumaiaara heldu
den 'Emakumea
surflari'
ekimenean.

EZ DUTE OLATUA GALDU NAHI

Sartu gure webgunean
eta ikusi eskaintzarik onenak!

ENDAÑETA ZUMAIA

35 urte baino
gehiagoko
esperientzia

EZAGUTU ENDAÑETA



Zure erosketak
etxetik eroso
egiteko

www.endañetazumaia.com

24/48 orduan
etxean
muntatua eta
martxan jarria

Dendako prezio
eta zerbitzu
berdinak



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endañetazumaia.com

Carmela Peñalba



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.eus

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkarte@baleike.com

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Maialen

Odriozola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet,

Peio Romatet, Arnaitz Rubio Aprea, Iosu Alberdi,

Jose Manuel Castillo, Jabi Gonzalez Toston,

Izaskun Urbieta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

publizitatea@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

5

erreportajea
TURISMOA
PROFESIONALEN
BEGITAN

21

erretratua
IÑAKI IJURKO

12

baleike +

EMAKUME SURFLARIAK
ITZURUNGO
OLATUETAN

26

elkarrizketa
JAVIER SOLAS

30

agenda
EKAINA-UZTAILA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua





Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel.: 943 14 31 22 ■ fax: 943 14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t w i



AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarte
Tel. 650 265 963

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943 862 152



LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI

dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 726188
943 143261



Amama taberna

tel.: 943 543 164
amamataverna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



ATARI TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 Tel. 943 509 169

Ardantzabide

ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4 Tel.: 943 862 532
Aroztegia: Santiago, 40 Tel.: 943 861 631

ARGISUN

ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Giroetzea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA

Naiztoa 2 • tel. 943 861 501

OGI-EDER



Arruti

ANGELES SORAZU 1 BEHEA
943 543 406
20750 ZUMAIA (GIPUZKOA)



Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943 861 485
autoszumaia@bosch-bcs.com

Azkue

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, behea tel. 615 793 406 / 943 862 651
elena@ricardoazkue.com fax: 943 862 748



BAKUN

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25 Tel./fax: 943 148 306
20740 Arroa bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritza

Ribaitaria Itaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
www.basadialbaitaritza.com
www.basadialbaitaritza.com

Golez: 11-13 / Arrabaldor: 15-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan ituta
Lamiakobako: 605 728 737 Eltxez ebeko zerbitzua



BASUSTA

erretegia • asador

José Blázquez

Pafila Etxezarreta, 25 Tel.: 943 86 20 73
943 86 04 38
20750 Zumaia (Gipuzkoa) asadorbasusta@hotmail.com



Braky's

Okindegia • Kafetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

TURISMOA PROFESIONALEN BEGIETAN

ERREPORTAJEA



Turismoak hazkunde handia izan du azken urteotan. Gero eta bisitari gehiago etortzen da Zumaiara. Baina, masifikazioa izateko arriskurik ba al dagu? Zer nolako turismoa nahi dugu? Galdera horiek erantzuteko turismoaren arloan lan egiten duten lau profesional elkarrizketatu ditugu.

“Sukar hau pasako da; turismo lasaia behar du Zumaiak”

TESTUA ETA ARGAZKIA: GORKA ZABALETA

Azken ukituak baino ez zaizkio falta Flysch Hotelari ateak zabaltzeko. Hemezortzi logelak prest dauzkate, eta laster irekiko dute Internet bidez erreserbak egiteko aukera. Hastera doan abentura berri baten zirrarekin bizi dituzte egun hauek Aitorrek eta Luciak, baina bide luzea eta nekeza egin behar izan dute honaino iristeko. “Hotela urte eta erdian eraiki dugu, baina proiektuarekin duela bost urte hasi ginen. Momentu gogorak pasa ditugu, dena uzteko zorian ere izan gara, baina, zorionez, hemen gaude, ilusio handiarekin”.

Duela bost urte hasi zen dena, krisialdi ekonomikoaren erdian. “Nik zilarrezko bitxiak diseinatzeko nituen”, hasi da Aitor esplikatzeko. “Negozioa gero eta okerrago zihoan, ez zegoen marka handiekin lehiatzeko modurik, eta bezeroak galtzen ari ginen. Orduan hasi ginen pentsatzen turismoari begira zerbait egin genezakeela. Nik bezeroak neuzkan Espainiako leku askotakoak, eta ohartu nintzen oso gutxi ezagutzen zutela Euskal Herria. Kantabria edo Asturiasekin alderatuta, hemen oso gutxi landu da turismoa. Egoera politikoa aldatu zenean, aukera bat ikusi nuen. Lehen jende asko ez zen etortzen beldurratik edo gorrotoagatik. Baina hori aldatu egin da, eta hori ikusi nuen aukera”.

Landetxeren bat hartzekotan ari zirela, San Telmora bidean dagoen lur sail batean eraikitzeak aukera aurkeztu zitzaion. Eta halaxe murgildu ziren Flysch Hotelaren proiektuan. “Guretzat bizitza proiektu bat da; hotelean inbertitu ditugu gure ondasun guztiak, eraikinaren goialdean daukagu orain gure etxea, hauxe izan da gure ilusioa”, dio Luciak; “Semea eta alabarengan pentsatuta ere eman genuen pausoa. Duela bost urte egoera ekonomikoa oso beltza zen, gazte asko kanpora ari ziren joaten lan bila. Hemen etorkizunerako aukera bat izango dute, gustuko lana badute”, jarraitu du Aitorrek.

Turismoaren gorakada

Gaur egun Zumaia modan dago eta turismoak gorakada handia izan du azken bi urteotan. Baina duela bost urte egoera oso bestelakoa zela gogoratzen dute Aitorrek eta Luciak. “Or-

duan egoera nahikoa tris-tea zen. Zumaian eskaintza oso eskasa zen –Zelai hotela ere itxita zegoen–, eta gelen okupazio mailak beldurra ematen zuen. Guk datuak begiratzen genituen ia egunero eta ez zuen animo handirik ematen”, gogoratzen dute. “Baina ikusi genuen turismo bulegoan lan handia ari zirela egiten, ilusio handiarekin, eta aurrera begira hobera egin zezakeela egoerak. Hori bai, ez genuen espero gero gertatu den eztanda”, aitortu dute.

Ocho apellidos vascos pelikulak eragin handia izan duela garbi dute biek, “erakusleihen bat izan da herria ezagutzera emateko”, baina uste dute egoera bere neurrira etorri eta “turismo lasaia” izango duela Zumaiak. “Orain sukarraren erdian gaude, baina hori pasako da. Guk uste dugu Zumaiak turismo lasaia behar duela eta hala izango duela. Zumaiak bere paisaiak eta bere ingurunea dauzka eskaintzeko, leku lasaia da eta baliho hori eutsi behar dio. Udan festa eta zalaparta nahi duenak Zarautzera eta Donostiako Parte

Zaharrera joko du”.

Hotelean ere giro hori eskaini nahi dute. “Etorri nahi duen orok dauzka ateak zabalik, eta gure gelak prestatuta daude, bi, hiru edo lau lagun hartzeko –bi gela sukaldedunak dira–; baina gustatuko litzaiguke leku lasaia izatea, eta horretarako daukagu kafetegi bat –bezeroentzat bakarrik– terraza eder bat, gela guztiak balkoiarekin, aparkaleku propioa... Horrez gain, aukera ikusten dugu enpresa munduarekin lan egiteko. Askok Donostia aldera joaten dira, eta ikusten dugu 15-20 bat minutura herri asko dauzkagula, enpresa asko, eta gurea aukera erakargarria izan daitekeela lana bukatu, Zumaiara etorri eta deskonektatzeko. Bertan daude Algorri, Itzurun, labarrak...”.



“Gertatzen ari dena **modu positiboan** hartu beharko genuke”

TESTUA ETA ARGAZKIA: JUAN LUIS ROMATET

52 urteko donostiarra, Jon Arratibelek 17 urte daramatza Zumaian lanean, betiere turismoaren arloan. Gaur egun Begi Bistan enpresako burua da. “Txomin Agirre kaia, Sarauneko zabalgunea eta Santiago hondartza batzen zituen ontziarekin hasi ginen eta handik urte batzuetara lehen bisita antolatu genuen: ontzian Urola ibaian gora eginda, Beduaraino joaten ginen”.

2003. urtean hasi ziren lehen bisita gidatuekin, “Algorri eta Itzurunen egiten zen paisajistikoa, Deba eta Zumaia arteko trekkinga eta bisita kulturala. Hura izan zen honen guztiaren hasiera. Lehen unibertsitateetan bakarrik ematen zen zientzia eskaintza denen eskura uztea zen gure asmoa, hona etortzen zen jendeak Zumaia beste era bateara ikus zezan, hain zuzen ere”.

Hasieran jendeak “aurpegi arraroarekin” begiratzen ziela dio Jonek, “baina denborak erakutsi du lan ona ari ginela egiten”.

Zumaian hasi zutena, denborarekin, Deba eta Mutrikura ere zabaldu zuten. “Euskal Kostaldeko Geoparkea sortu zenean, hiru herrietan zegoen eskaintza bateratu zen. Horrela, Debara, Mutrikura edo Zumaiara etorriko ziren banakakoei, bikoteei edo talde txikiei irteera hauetan parte hartzeko aukera zabalduko zitzaien”. Talde handiei zuzenean eskaintzen dizkie bisita gidatuak, adierazi digunez.

Turismo aldetik gaur egun bizitzen ari garen hazkunderaren mugarrietako bat 2007. urtean aurkeztu zen *Flyscharen ibilbidea* dela gaineratu du. “Ibilbide horri esker ezagutu zuen jende askok Zumaia. Bitxia da, baina horren aurretik jendea ez zen Getariatik pasatzen hona; Zarautz eta Getaria beteta egoten zen, eta Zumaia hutsik. Horma antzeko bat zegoen, guk txarrantxa deitzen geniona. Hori aldatu egin da. Pixkanaka ari da jendea etortzen eta, gaur egun, promozio aldetik, Zumaia mapan dago.

Azken urteotan gora egin du Zumaiara etorritako bisitari kopuruak. Arratibelen ustetan kopuruan bakarrik ez, bisitarien tipologian ere izan da aldaketa. “Orain hasi gara turistak jasotzen. Orain arte egunpasako txangozaleak etortzen ziren, Gipuzkoakoak bertakoak eta inguruko probintzietakoak. Gero, bisitariez betetako autobusak etortzen dira. Horiek



gehienez ere 20 minutu egiten dituzte hemen. Lortu behar duguna da 20 minutu bakarrik ez, hiru ordu egitea hemen, herria pixka bat ezagutu eta gastua egin dezaten”.

Masifikaziorik ez

Jonek ez du uste turismo masifikaziorik izango denik. “Bai zera! Astegun batean edo aste-buru batzuetan Erribera kaletik

joaten bazara ikusten duzu ez dela hainbestekoa. Aste Santuko egun batzuetan jendetza egon da, baina beste hilabeteak lasaiak izan dira. Hori kostaldeko herri guztietan gertatu da eta horretarako prestatuta eta mentalizaturik egon behar dugu. Trafikoaren inguruan bai, arazoak ikusten ditut, baina horri irtenbideak aurkitu nahian ari dira”. Herrigunea beteta dagoenean Zubitxikitik kotxeak pasatzen ez uztea eta kotxeak kanpoaldeko aparkalekuetara bideratzearen aldekoa da.

Etorkizunera begira, planifikazio baten beharra ikusten du, zehazteko zer nolako turismoa ekarri nahi den. “Nik garbi daukat familiari lotutako turismoa erakarri behar dela. Turistak ari dira etortzen eta ez dute uste beldurra izan behar dugunik. Are gehiago, nire ustez aukera bat da hau. 17 urte hauetan ez dut Zumaia hain polita ikusi. Erribera kalea komertzioz beteta dago, Beheko Plaza ere ederra geratu da, giroa du. Ez dut inoiz Zumaia hain bizirik ikusi. Eta nori egiten dio horrek mesede? Bada, zumaiarrei”.

Sortzen diren aukera hauek aprobetxatu behar direlakoan da. “Pasa dugun garai ilunaren ondoren, krisi bortitz horren ondoren, gertatzen ari dena modu positiboan hartu beharko genuke. Baina, ondo egin behar da. Zumaiak logistika aldetik bere arazoak ditu, gero eta bizilagun gehiago ditu eta, gainera, kanpotik jendea dator... Etorkizuna planifikatu behar da eta beldur hori aukera bihurtu”.

“Lehen turismoari bizkarka begira bizi ginen, eta orain aukera bat ikusi dugu”

Hirugarren sektoreari, eta, batez ere, turismoari eta ostalaritzari, lotutako familiatik dator Lore Uranga. Etxe Ona jatetxeko alaba da, eta Turismo Zientzietan lizentziatu ondoren, bidaia agentzietan ibili da lanean. BQD bidaiak agentzia ireki berri du.

TESTUA ETA ARGAZKIA:
IZASKUN URBIETA ESNAL

“Turismoak eboluzio handia izan du; aldaketa ikusgarria izan da, baina turismoa beti egon da Zumaian”, azpimarratu du Urangak. Etxe Ona jatetxeko alaba da, eta txikitatik ezagutu du kanpotarren joan-etorria. Garai hartan, kanpoko jendea erakartzeko aktuzioak eta ekintzak antolatzen zituzten jatetxeko terrazan. Barrualdetik etorritako jendea zen orduan turista, “udara kostaldean pasatzera etortzen zirenak”. Jende asko egunpasa etortzen zela gogoratzen du. “Oso tipikoa zen hondartzara etortzea eguna pasatzera, eta gero, etxera bidean, Etxe Onan gelditzea txokolatea eta txurroak jatera”.

Gezurra dirudien arren, krisiak turismoari bultzada eman diola uste du Urangak. Bere iritziz, garai batean jendea turismoari bizkarka bizi zen. “Herri industrialia izan da Zumaia eta turismoari ez zitzaion garrantzi handirik ematen, bizkarka bizi ginen. Orain, krisia dela medio, askok aukera bat ikusi dute turismoan”.

Turismo ereduak aldatu egin direla dio. Urangak errepaso azkarra egin du. “*Belle époque*ko garaian, “Los baños del mar” deitzen zen turismoa egiten zen Zumaiaiko hondartzetan eta Zestoako bainuetxean”. Ondoren, industrializazioa etorri zen. Horrek Espainiako hainbat probintzietatik jendea lanera etortzea ekarri zuen, eta haien oporrak beraien jaioterria joatea izaten zen.

Globalizazioarekin, ordea, jendea atzerrira hasi zen joaten eta lekuak bisitatzen, baina opor egunak moztzen. “2005-2008. urteen artean, oso urte oparoak izan ziren. Garai hartan jendea gutxienez urtean bitan ateratzen zen oporretan”.



“Egunpasako oporren formularen, Zumaia iraultza bat izan da”

Ondoren, krisialdia etorri zen. “Bidaia motzagoak egiten hasi zen jendea, motzagoak eta gertuagokoak. Asko egunpasako oporren formula erabiltzen hasi zen, eta egunpasako horretan Zumaia iraultza bat izan da”, nabarmendu du.

Gaur egun turismo esperientziala deitzen dena dago modan. “Zer da hori? Leku batera joan esperientzia bat izateko, zerbait ikusteko, ikasteko, egiteko”. Euskal Kostaldeko Geoparkeak, adibidez, asko lagundu dio horretan herriari, bisita gidatuak, itsas zeharkaldiak eta abar eskainiz, eta Zumaia nazioartean kokatuz.

“Natura aldetik, altxor bat daukagu eta oso ongi kudeatu da. Mundu osoko geologoak ez ezik, bisitari askok gozatu dute eta flyschaz”.

Azken hiru urteotan, berriaz, fikziozko pelikulek eta telebistak jarri dute puntua. “Ukaezina da *Ocho apellidos vascos*”.

sek eragin duen zurrumbiloa herrian. Dударik gabe, iraultza ekarri du herrira. Orain *Game of Thrones*ekin izango da. Horrek ere Zumaia munduan jarriko du. Fikzioetako agertokiek asko erakartzen dute jendea, ezin dugu imajinatu ere egin”.

Azkenaldiko gune turistikoez gain, beste potentzialtasun bat ere aurkitzen dio Urangak Zumaieri. “Nik uste falta zaigula Parrokiari eta Zuloagari bultzada bat ematea”, aipatu du. Bide beretik, uste du Santiagoko dunei eta inguru natural horri indarra emateko garaia dela. Hala ere, arazo handiena lotarako orduan dagoen gabezia ikusten du. “Zumaian gelak falta dira; orain hotel berria irekiko dute, baina, orokorrean, gelak falta dira”.

Prest al gaude?

“Nik uste dut herrian ikara eszenikoa dagoela. Baina alderantziz behar du izan, lortu behar dugu jendea hemen gelditzea. Askok pasadan etortzen dira eta ez dute dirua hemen uzten.

Nik ez dut ikusten jendeak esaten duen saturazio hori gertatuko denik, ezta gainezka egingo duenik ere”.

“Fikzioetako agertokiek asko erakartzen dute jendea, ezin dugu imajinatu ere egin”

“Turismo bulegoetatik, baita erakunde publikoetatik ere, lan egin behar da etortzen den jendea sakabanatzeko”

Azkenaldian asko entzuten den kontzeptu berri baten inguruan galdetu diogu Urangari: gentrifikazioa. Auzo baten burgesa edo elitizazioa da, eta horrek erosteko ahalmen txikiagoa duen jendea auzotik botatzen du. Turismoarekin ere gertatzen da, izan ere, auzo edo inguru zehatz batean turisten eta alokairu turistikoaren masifikazioa etortzen da. Eraginen artean alokairuen garestitzea dago. “Hemen pasako den edo ez? Momentuan ez dago, gehien bat logelarik ez dagoelako. Eskaintza handiegia bada, badago arrisku hori”, kontatu du.

Fenomeno hori ez gertatzeko azpimarratu du erakundeek kudeaketa eta estrategia egokia landu behar dutela. “Turismo bulegoetatik, baita erakunde publikoetatik ere, lan egin behar da etortzen den jendea sakabanatzeko. Aukerak baditugu, eta horretarako lana egin behar da”.

ZATOK ITSASOAREKIN GOZATZERA!



Webgunea: talasoterapiazelai.com

Tel. 943 865100

Talasoaren ordutegia: Egutero irekita 9:30etik 20:30era

Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.



“Alokairuen garestitzearen errua etxe turistikoei leporatzen zaie, baina oraindik ahaztu egiten da zenbat etxe dauden **hutsik**”

Turismoak eztanda egin du, eta hotelez, ostatuz, kanpinez eta dena delakoez gain, badira batzuk beraien etxebizitza turistei uzten dietenak. “Alokairu turistikokoak” bezala da ezaguna negozioa, eta iazko udazkenean Zumaian ireki zituen ateak horrelako enpresa batek: Basquestayk. Bi urte daramatzate zerbitzuen sektorean lanean; Donostian hasi ziren, eta Zumaian jarraitu zuten.

TESTUA ETA ARGAZKIA:
IZASKUN URBIETA ESNAL

Zumaiaiko bulegoa Zarautz, Getaria eta Zumaiaiko etxez arduratzen da. Momentuan zortzi etxe dituzte Zumaian. “Zumaiaiko etxeak ezagunen bitartez, eta, batez ere, ahoz ahokoaren bidez lortu ditugu. Bulegoa ireki zenean, bisibleago egin ginen, eta horrek ere lagundu du”, kontatu du Lazkanok.

Basquestay enpresaren ardura da apartamentuen kudeaketa osoa, hau da, etxeak iragartzea, giltzak banatzea, garbiketa egitea... “Gure filosofia da etxejabeek ezertaz ez arduratzea. Guztiaz daude informatuak, baina ez dute ezer ere egin behar”. Etxe bat alokairuan emateko lehen pausoa da Basquestaykoek etxea bisitatzea. Behin etxe jakin horren ezaugarriak aztertutakoan baiezkoa edo ezezkoa ematen dute. “Erabakia ez dugu hartzen etxea zatarra delako edo ez. Kontuan hartzen duguna da etxetresnak funtzionatzen duten, argindarra ongi dagoen... Behin minimo horiek betetakoan, iragarkia jartzea da hurrengo pausoa”, kontatu du.

Iragarki horiek hainbat bilatzailetan jartzen dituzte. Orrialde ezagunetan agertzen dira etxeak, besteak beste, Airbnb, Homeway, Booking eta Tripadvisorren. “Hainbat bilatzailetan etxea iragartzearen alde ona da garestiago eman daitekeela”.



Giltza jasotzeko, turistek Basquestayko bulegora joan behar dute. Bertara, kodigo baten bidez sartzten dira eta barruan, zenbakituta dauden buzoi batzuk dauzkate. Han, aurrez email bidez bidali dieten zenbakiko kutxara joan behar dute, eta beste kode batekin, atea zabalduko dute eta giltza hartu. “Horretaz gain, etxera iristeko instrukzioak ere email bidez ematen ditugu: zein den portala, zein den atea, garajea, etxetresnak nola pizten diren...”.

Baina zertan ezberdintzen dira Basquestay eta Airbnb, adibidez? “Airbnbk etxeak iragartzen ditu. Salmentarako

kanal bat bakarrik da, eta, beraz, etxejabeak entregatu behar ditu giltzak, baita etxea garbitu ere. Guk lan hori kendu egiten dugu. Zerbitzuan pauso bat gehiago eskaintzen dugu". Basquestayren helburua etxejabeari ahalik eta errentagarritasun handiena eskaintzea da. Zumaian, batez beste, hiru gauko eskaria dago. "Gutxi gorabehera, 120-140 egunez alokatzen da etxe bat hemen. Guk kentzen dugun komisiorekin, jabearentzat errentagarria izateko, ziklo oso motzak eta errepikakorak izan behar dute". "Ez da pentsatu behar alokairu turistikoekin ohikoekin baino gehiago irabazten denik", azpimarratu nahi izan du. Hainbat faktore sar-tzen dira hor jokoan. "Etxea oso ondo baldin badago dekorazio eta kapazitate aldetik, ongi kokatuta baldin badago eta aparkalekua baldin badu, jabeak diru gehiago aterako du alokairu turistikoan. Bestela, eta Zumaia-aren kasuan, hobeto aterako zaio ohiko alokai-ruan utzita".

"Hainbat bilatzailetan etxea iragartzearen alde ona da garestiago eman daitekeela"

"Ez da pentsatu behar alokairu turistikoekin ohikoekin baino gehiago irabazten denik"

tikoei leporatzen zaie erru guztia, baina oraindik ere ahaztu egiten zaigu zenbat etxe dauden hutsik. Jabe batzuek ez dute etxea alokairuan ematen; ez turistikorako, ezta ohikorako ere. Nire ustez, etxe gutxi egoteak du eragina garestitzean..

Hala eta guztiz ere, hirietan eta bertako gune batzuetan gerta-tu den masifikazioaz kontziente da Lazkano. Donostiako Alde Zaharra, esaterako, gainezka dago. "Bertako jendeak badu arazoa, bai, jende trafikoa handia izaten dute eta segun nola kudeatzen den arazoak ekarri ahal ditu. Esaten da Do-nostian ere mugatu egingo dutela alokairu turistikoaren kontua. Ezta-baida mahai gainean dago, baina ez dago oraindik erregulatuta". ■

Arazoak eta debekuak

Alokairu turistikoaren negozioa boom handia izan da Euskal He-rrian, baita hemendik kanpo ere. Hain nabarmena izan da honelako ostatuaren gorakada, hiri handietan murrizketak ezarri dituzte. Horri lotu behar zaio ohiko alokairua-ren garestitzea. "Alokairu turis-tikoei leporatzen zaie erru guztia, baina oraindik ere ahaztu egiten zaigu zenbat etxe dauden hutsik. Jabe batzuek ez dute etxea alokairuan ematen; ez turistikorako, ezta ohikorako ere. Nire ustez, etxe gutxi egoteak du eragina garestitzean..

Bai bidea batzokia jatetxea

- Sukalde berrietua
- Eguneko menua eta karta



Eusebio Gurrutxaga plazan 943 86 02 75

Emakumeen artean surfa indartzeko asmoarekin sortu zen 2014an “Emakumea surflari” proiektua. Aurtengoan Zumaia iritsi da, 18 urtetik gorako emakume zumaïarrek zazpi astez kirol honekin gozatzeko aukera izan dezaten. Gorantz doan kirol honetan emakumeek ere beraien lekua hartu nahi dute, olaturik galdu gabe.

Emakume surflariak Itzurungo **olatu**etan





TESTUA: IOSU ALBERDI
ARGAZKIAK: PEIO ROMATET ETA CARMELA PEÑALBA

Aurretik Deba, Zarautz edo Hondarribiko hondartzetan egin izan da, baina *Emakumea surfari* proiektua Itzurungo hondartzara iristen den lehen aldia da, eta badirudi geratzeko etorri dela. Bertan irakasle dabilen Carmela Peñalbak badu monitorea lanetan esperientzia, baina proiektu honetara ustekabean iritsi zen: “Nik ez nuen proiektuaren berri, Orroagan surfean nenbilela Zarauzko beste surfari batek hitz egin zidan honen inguruan eta ea Zumaian irakasle aritzeko norbait prest egongo litzatekeen”. Peñalbak bere burua aurkeztu zuen eta bertan lanean dabil apirilaren 25ean ikastaroa hasi zenetik.

Zazpi taldetan banatuta dauden 42 emakume ari dira astero neoprenoa jantzi eta uretara sartzen, eta askorentzat lehen aldia da. Peñalba pozik ageri da izen eman duen jende kopuruarekin: “Proiektu honegatik ez baltz, agian jende hau guztia gogoarekin geratuko zen”. Batz besteko adina 30-35 urte ingurukoa da ikastaroan. “gehienak dagoenko amak dira eta horrek ere harritu egiten zaitu”, dio. Horien artean daude Edurne Martija, Naiara Eizagirre, Naroa Aranzabal eta Eider Aranguren. Laurak ostegun arratsaldeetako klasean biltzen dira, seietatik zortzietara bitartean, itsasoak uzten dien adina olatu hartzeko asmoarekin.

Peñalbarentzat harrigarria izan zen zenbat emakume apuntatu ziren. Federaziotik ere esan zioten ea gai izango ziren hainbeste jende hartzeko: “Irakasle batek etorri behar izan du Zarautzetik, kanpoan ahalik eta jende gutxien gera zedin”. Halere, badira tokirik aurkitu ezin izan dutenak. Ikasle gutxi batzuk espero zituen irakaslea, ordea, konturatuz joan zen proiektuak oso harrera ona izan zuela: “Bat-batean, Zumaian jendea surfaren inguruan hitz egiten hasi zen. Lagun batek esan zidan eskolara joan eta hiru ama haurren zain zeudela surfaren inguruan hizketan aurkitu zituela. Ikastaroan apuntatu edo ez pentsatzen”.

“Urte batzuk ditugu eta inoiz egin ez dugun kirol batean ari gara. Guretzat abentura txiki bat da” Edurne Martija

Ikasleek ere berdin pentsatzen zuten. “Gutxienez hiru eta gehienez seiko taldeak zirela ikustean, ‘ea hiru elkartzen garen’, pentsatu nuen”, dio Martijak. Eizagirreraren kezka ere berbera izan zen, gutxienekoa osatzera ea iritsiko ziren.

Abentura txiki bat

Eizagirre ziur zen aurtengoan proiektuan parte hartuko zuela: “Zarautzen denbora dezente daramate ikastaro hauek egiten eta lankide batek apuntatzera animatu ninduen, baina alferkeriak atzera botarazi ninduen”. Aurtengoan, berriz, Aranzabal eta biak prest zeuden Zarautza joateko. Itzurunen ere egingo zela konturatzean, ordea, biek “begiak itxita” eman zuten izena herrian bertan. Aranzabalek gehitu du biak batera izena ematea “beharrezko laguntza” izan zela pausoa emateko.

Martijak, berriz, ez zuen aurkitu kuadrillan prest egongo zen lagunik, baina “ikaragarritzko aukera” ikusi zuen aurrera egiteko: “Azken finean denok antzeko egoeran gaude, urte batzuk ditugu eta inoiz egin ez dugun kirol batean ari gara. Guretzat abentura txiki bat da”.

Inoiz ez da berandu

Gaztaroan surfean aritzeko zailtasun gehiago izan zituzten eta aukera hau aprobetxatu nahi izan dute guztiek. “Lehen askoz jende gutxiago aritzen zen surfean eta nik beti eduki izan dut probatzeko gogo”, dio Martijak. Eizagirreraren ustez, agian “lotsa” izan zitekeen beste momentu baten uretara sartu ez izanaren arrazoia. “Landetara joanez gero, probatuko dugu”, esaten genuen”, gehitu du Martijak.

Peñalbaren ustez jarraitasun faltan dago arazo nagusia: “Batzuetan, kirolean emakumeoi kosta egiten zaigu jarraitasuna ematea, taldeka ez bada. Gero eta indar handiagoa du surfak, baina asko, lotsagatik edo, atzean geratzen dira”. Horri aurre egiteko sortu zen proiektua, “emakumeek emandako klaseak emakumeentzat”.

Guztiak ados daude egun uretako kirolek salto egiteko erraztasun gehiago daudela, tartean ZISKE edo hainbat ikastaro herrian bertan. “Gure artean inork ez zuen taula bat eramaten hondartzara edo esaten ‘momentu batez hartuko dizut uretara joateko’. Mutilen artean, berriz, bai”, gogoratu du Aranzabalek.

Aldaketa ez dute surfera mugatzen, kirol mundu osora zabaldu baizik. “Sexuka banatu izan dira kirolak eta hori orain desagertzen ari da”, dio Eizagirrek. Martijaren ustez, denean gertatu da aldaketa: “Guri ez zitzaigun pilotan aritzea okurritu ere egiten eta egun emakumeak indartuz doaz hor ere”. Aranzabalek ere dioenez, bakoitzak bere buruari jartzen dizkion mugak “erabakigarriak” dira.

Proiektuaren zereginetako bat “begien aurrean dugunaz eta galtzen ari garenaz konturatzea” dela dio Peñalbak. Gaztetan





PADDLE

Olatuak hartu ez dituztenean, paddle-ean labarretako zuloetara eta Algorrira joan izan dira.





egin ez zutena orain egiteko aukera izatea “baloratu beharrekoa” dela uste dute ikasleek, surfean eta gainerako esparru guztietan. Emakumeentzako soilik prestatutako ikastaroa izanik, gainera, babes handiagoa sentitzen dutela adierazi dute. “Uretatik kanpo ere igartzen da giro berezi hori, aldageletan, baita hasi aurretik eta ondoren ere”, gehitu du Martijak.

Lehen olatuaren aparrean

Astean bi ordu eskainiz, proiektuko bosgarren asterako jada ikasle guztiak gai izan ziren taularen gainean zutik jartzeko. “Erraza dirudi, baina lortzen ez baduzu, frustragarria izan daiteke”, azaldu du irakasleak.

Azken asteetan olatu handirik ere ez dute izan eta askotariko ekintzak egiteko tarteak izan dute, besteak beste, paddleak hartu eta Algorriraino joatekoa. “Beti kanpora joateaz pentsatzen ari gara eta hemen ere gauza ederrak egin daitezke, gozatu handia izan zen hura”, azpimarratu du Martijak.

Denek lehen eguna dute gogoan guztietan gogorrenzat. Ur hotza, itsaso zakarra... Egun hura pasatu eta gero, Aranguren galdetu zion bere buruari zertarako apuntatu ote zen. Olatu bategen hankaz gora jarri zuen talde osoa eta taulak buru gainean amaitu zuten. Ohera sartzean oraindik ere olatuekin esnatzen omen zen Martija.

Gertatuak gertatu, lehen egunetik gora egin izanaren sensazioa dute guztiak. “Bigarren astean eguraldi ederra egokitu

zitzaigun eta guretzako moduko olatuak”, dio Aranzabalek, “zeharo gustura aritu ginen olatuak hartzen”. Uretatik irten eta eginiko lana ospatzeko, pintxopotera irten zen taldea.

Aurrerapenaren meritua irakasleari ematen diote lau ikasleek. “Segurtasuna transmititu digu, betidanik ezagutuko bagina bezala”, dio Aranguren. Surfa urrutiko zerbait bezala ikustetik bizitzera igaro dira guztiak, garrantzia emanez amore ez emateari. “Gure adinarekin eta inoiz surfean ibili gabe, tente jartzen asmatzea ikaragarria da”, azaldu du Eizagirrek, “baina tente jartzetik surf egitera alde izugarria dago”.

Peñalba ere harro dago ikasleek izaniko aurrerapenaz: “Jendea Itzurun goitik begira jartzen da eta uretan daudenek zutik jartzeko zein abildade duen goraipatzean, nik dudarik gabe erantzuten diet: ‘Zer uste duzue, ba, nire ikasleak dira’”. Irakasleak hauen ilusioa ere goraiatzat du: “Gogo gehiagorekin etorrarazi didate”.

Taldean sortu den giroarekin oso gustura daude denak. Batzuetan besteetan baino gehiago kostatu izan zaie ikastarora joatea, baina inor ez da egingandakoaz damutzen. Gertatu izan zaie lanegun gogor baten ostean neoprenozko trajea janzteko ere indarrik ez izan baina uretara sartzea. “Egun horietan, uretatik irten eta eskerrak ematen dituzu, eguna poztu dizula konturatzen zarela”, dio Aranzabalek. “Olatu bat hartzen duzunean hainbesteko zirraragaitzen dizu, konpartitu egin behar duzu!”, gehitzen dio Aranguren.

Zazpi taldetan
banatuta dauden
42 emakume ari
dira astero uretara
sartzen



“Olatu bat hartzen duzunean hainbesteko zirrara eragiten dizu, konpartitu egin behar duzu!”, Eider Aranguren



Uda begi aurrean

Zirrara horrek asko bultzatu ditu ZISKE elkartean izena ematera. Elkarrizketatutako lau ikasleek ez dute aukerarik izan oraindik ikastaro orduez kanpo uretara sartzeko, baina ez dute dudarik egiten udan bertan izango direla.

Peñalbak inork baino hobeto daki surfak harrapatuz gero bizitzaren parte bihurtzen dela eta horregatik animatzen ditu ikasleak uretara gehiago sartzera. Halere, ulertzen du edo-nork ez duela askatasuna itsasoaren egoeraren arabera eguna antolatu ahal izateko. Izan ere, ikasleetako asko lanean ari dira edota haurrak dituzte.

“Emakumea surflari” proiektua irailean itzuliko da berriz ere, udan atsedena hartu ondoren. Lehen ikastaroak izaniko arrakastaren ondoren, goraldiak jarraitzea espero du Peñalbak, egun uretara sartzen diren emakumeen kopurua igotze-



ko asmotan. Arangurennek ere aurrera ideia batekin begiratzen du: “Udan surf egiten jarraitzen badugu, ez dakit irailerako jada zer maila edukiko dugun”. ■

BEDUA ITURGINTZA S.L.

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700



Amajako plaza, 13 tel. 943 862 385
www.xantialtzariak.com



Erribera kalea, 6 20750 Zumaiak tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara

MÁSMÓV.L



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3

Tel. 943 860 045

ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A

tel. 943 016 353

UZKUDUN taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 11 63 97

Galdona



Mendado marmela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330



Juan Belmonte, 5

tel. 943 861 057



Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola

tel.: 943 86 21 81

Txomin Agirre, s/n

20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE

INGLES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 391 777

matrikulazioa dohainik!



Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

yoana ileapaindegia

Amaia plaza,
2 beheha
943 143 278



Ikastegi homologatua

Golden Gate

Institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943 865 020
info@goldengateinstitute.com

ZUMAIAKO SOLDADURA ZENTROA

GINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA SOLDADURA

**2017-2018 ikasturtea:
aurre izen-ematea Ekainaren 5etik 16ra**



Bailara eraikiz

- ✓ Hezkuntza arautua, Oinarrizko Lanbide Heziketa: Soldadura.
- ✓ DBH gainditu ez duten 15, 16 eta 17 urte bitarteko gazteentzat.
- ✓ Bi urteko ikasketak.
- ✓ Bigarren mailan praktikak, eskualdeetako lantegietan edo udalentzat lanak eginez.

Argibideak jaso eta izena emateko:

Urola Kostako Udal Elkarte

Soldadura Zentroa

Estazioaldeko industrialdea, Urola plaza 10, Zumaia Tel. 943862576 edo 943890808
soldadurazentroa@urolakosta.eus www.urolakosta.eus



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Gure-Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiak
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran ingaterrara ingelesa praktikatzera

www.academiarharvest.com

San Jose, 11 bis. tel. 943 143 334

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

Iriondo optika



Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943 86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943 85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orofarako solnu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa
tel. 943 63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ



Ileapaindegia Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIK (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
OPARIK



Angelos Soraru, 2
20750 ZUMAIK (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
fax: 943 430 637

Talaira
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

ORRAZTEGI
ZUMAIK



943 862 083

JUARISTI
jatetxea


Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Baseldi auzategia, 10 tel. 943 05 05 77

JUSTA
taberna

Erribera kalea, 20 www.justataberna.com
tel. 943 861 405 justa@justataberna.com

K&BI Patika Etxezarreta, 18
943 117 427



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak
Santiago auzoa, 20 Tel./fax: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

DOIA



Julio Beobide, 2
943 574 986

kuttun
lentzeria



erribera kalea tel. 943117936

“Musulman batentzat yihad zailena musulman bezala bizitzea da”

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

ERRETRATUA

Azpeitian orain 59 urte jaioa, Iñaki Ijurko Zumaian bizi da 24 urte zituenetik. Zumaiaiko eskoletan egin zituen ikasketak eta gaztaroan musika munduan ere ibili zen. Orain 27 urte baina, erabat aldatu zuen bizimodua. Jaioberritan kristautasunean bataiatu zuten, baina 1990. urtean musulman bihurtu zen. Bizitzak 180°-ko aldaketa izan zuela dio.

Iñakik eta Jamilla Sellami emazteak etxean hartu gaituzte elkarriketa honetarako. Motibo musulmanekin dekoratuta dute etxea. Egongelako mahai gainean Korana dute, eta alboan fruitu lehorren azpil handi bat jarri digute jateko. Tea prestatzera joan da Jamilla sukaldera, eta Iñaki hizketan hasi da. Bi modutan hitzegite du: bere fedeari buruz ari denean, mantso, hitz guztiak neurtu nahiko balitu bezala; haurtzaroari edo iraganari buruz hitz egiten duenean, ordea, Urola bailarako hizkera azkarra azaleratzen zaio.

Esaera zahar batek dio futboleko taldea izan ezik, gizakiak iritziz, pentsaez eta ideologiaz aldatzeko gai garena. Baita fedeari ere, Iñakik erakutsi digun bezala. Kristau bataiatu zuten, baita txikitik praktikatu ere. “Eliz mutila izan nintzen”. Gaztetan berbena taldeetan ibili zen, musika jotzen, baina adinean aurrera egin zuenean, beste interes batzuk aurkitu zituen: “Ikasten hasi nintzen, beste gauza batzuk ezagutu nituen eta pauso hori eman nuen”. Aipatzen duen pausoa kristau izatek musulman bihurtzekoa da. 1990. urtean izan zen, 32 urte zituela. Orduetik, gauzak “ezagutzen eta konfirmatzen” joan dela esan digu. “Islamaren sustraia pixka bat ezagutzen joan nintzen, baita pixkanaka sartzen ere”.

Konbertsioaren aurreko bizitza nola gogoratzen duen galdetu diogunean, “kalean asko ibili” zela dio. “Nik 180°-ko buelta eman diot neure bizitzari eta gorputzak eskertu du hori. Orain ez dut erretzen edo edaten. Nire buruan aurkitzen dut guztia, ez dut bestelakoen beharrik. Janaria bai, bestela hilko nintzatekeelako. Nola ikusten dudan nire aurreko bizitza? Badakizu ohiturak nolakoak diren hemen, gizartea nolakoa den. Hemen jendea tabernetan integratzen da, argi

eta garbi, eta musulmanak ezin du sartu alkohola saltzen duten toki batera”.

Gazteek fedea galtzea taberna giroarekin lotzen du. “Lagunak ez badira [elizara] joaten, galdu egiten da. Gero, tabernaren kultura ezagutzen baduzu, eliza tontoen kontua bezala ikusten da eta apartatu egiten dira. Gizarteak aspalditik du galduta fedea, bestelako mentalitateak dituzte. Gero, eskoletan Darwinen hitzak irakasten dituzte; hori da gaur egungo erlijioa”.

Kreazioaren orde, eboluzioaren teoria irakasten da.

Hori da, baina hori teoria besterik ez da, eta erakusten dute egia izango balitz bezala.

Fedea eta zientziaren arteko talka dago hor.

Frogatuta dagoenean zientzia da, baina hala ez denean, teoria besterik ez da.

Eta erakusten dute zientzia balitz bezala.

la. Hori, gure ustez, akatsa da. Gure liburuan, Koranean, esaten da bizitza oro uretatik datorrela. Hori ez zuen Darwinen erabaki; Koranak hori orain dela 1.300 urte zioen. Musulmanek bazekiten nondik zetorren bizitza, gauza asko zekizkiten eta liburu horretan ikasgai asko jasotzen dira. [Darwinena] Teoria besterik ez da eta eskoletan egia balitz bezala ikasten dute. Hor dago kaltea; erlijioa galdu egin da, beste gauza asko galdu diren bezala.

Jamilla teontziarekin sartu da eta denoi atera digu te bana. Elkarriketan zehar basoa beteko digu beste bizpahiru alditan. Arabierazko hitz bat esan du esertzerakoan. “Batuetan alto esaten dut eta beste batuetan barrenetik. Jainkoaren izenean egin dudala esan dut”. “Dena egiten dugu jainkoaren izenean”, berretsi du Iñakik. “Aulkitik jaiki, animalia bat hil...

“Alkohola edatean desinhibitu egiten zara, erlijioa ahazten duzu eta tentazio gehiago izaten dituzu. Horregatik, alkohola eta drogak ez dira onak musulmanentzat”



Dena egin behar da jainkoaren izenean. Haragia *halal* eran prestatzen denean hori esan nahi du: jainkoaren izenean ari zarela esan eta orduan hil dezakezu animalia. Animaliak ere bereak dira, ez gureak”.

Afrikatik edo Pakistanetik etorritako musulman ugari etorri da eskualdera bizitzera. Horri esker haragia *halal* erara prestatzen duten harategiak zabaltzen dira. “Hemen harategi musulmanak badaude eta horietan erosten dugu haragia. Lehen ez zegoen eta ohiko harategietan erosten genuen. Horrek ez du kalterik egiten. Beno, txerria ez bada. Guk txerria ez dugu jaten. Ezin dugu jan, hala aginduta dagoelako eta arrazoiak daudelako”.


Iñakik aitortzen duen erlijioa, Islama, “unibertsa eta tolerantea” dela dio hizketaldian zehar. “Profetak hala erabaki zuen. Hark esan zuen tolerantzia izan behar zuela beste erlijioekin”. Hori hala izanda ere, onartzen du Islamaren barruan korronte desberdinak daudela, horien artean batzuk oso erradikalak. Korronte horietako partaide izanda erlijioa modu zorrotzagoan bizi ote duten galdetu diogu. “Zorroztasun hori norberak erabakitzen du. Erlijioa ezagutzean perspektiba hartzen duzu. Musulman batentzat *yihad* zailena musulman bezala bizitzea da. Ez da erraza. Ikusten duzunarekin tentazioak izaten dituzu. Alkohola edatean desinhibitu egiten zara, erlijioa ahazten duzu eta tentazio gehiago izaten dituzu. Horregatik, alkohola eta drogak ez dira onak musulmanentzat”.

Tamalez, Islama indarkeria kontuekin lotzen dugu, bai

Ekialde Ertainean dauden gerregatik, baita erlijio honen izenean mundu osoan (eta ez Mendebaldean bakarrik) izandako atentatuekin eta sarraskiekin. “Orain Sirian, gerretan, gertatzen ari direnak musulmanek ezin dituzte sinetsi. Liburuetan horiek ez dira ikasten!”. Jaungoikoaren izenean jendea hiltzea erlijioa ez dela dio. “Ezin da ulertu. Batzuk *yihad* horiek erlijioaren defentsan egiten direla diote, baina erlijioa defendatzeko, erlijioa bizi egin behar da. Eta erakutsi. Liburu horiek egia asko dituzte, baita misterio asko ere. Liburu hau [Korana] eta profetaren bizitza dira arma handienak. Profeta txiroa zen: olo poltsa bat eta ohe bat zituen, besterik ez. Mundu honetan ez zuen ezer berea zenik, beste bizitzan egon zen eta”.

Hor kristautasunarekin paralelismoa egin dezakegu: Jesukristo, ustez, txiroa zen, baina, gero, hor dugu Vatikanoa eta kuria. Musulmanen kasuan hor dago Saudi Arabiako erregimena eta Emiratuetakoa xeke aberatsak.

Islamak dio zuk dirua izan dezakezula eta ondo bizi zaitezkeela, diru hori jaungoikoak eman dizulako. Hori bai, diruak jatorri egokia izan behar du: ez dadila izan lapurretatik eta krimenetik datorren dirua. Baina, gero, musulmanok lege batzuk ditugu: urteko mozkinen % 2,5 gizaritari itzuli behar diogu, edozein gai sozialetara bideratu behar da. Hori aberatsek egiten al dute? Askok diote ezetz. Ez da ulertzekoa. [...] Aberatsa izanda zailagoa da musulmana izatea. Mundu materialari heltzen diote eta ez etorriko den munduari. Xeke



denda:

Mendaro marinela, 1
tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^o Korta Industrigunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943 861 117
fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako

era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak

LABARRA TABERNA ZUMAIA est.2016

Ondartxo plaza 5. Tel. 943 860 484



MENDI - ONDO S.L. Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



BALEIKE.eus

Deskargatu doan app-a



CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

Nikol taberna

Amniako plaza 343561816



NOIA S.L. TAILERRAK ETA KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar induristegia, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

636 887 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)

www.carroceriasnoia.com



Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioako kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



construcciones y reformas, S.L.
647 040 156
686 911 257
oliden@olidenreformas.com
Oliden arkitek-tura
678 875 652
943 143 093
lar@olidenreformas.com

ZARAUZ - ZUMAIA
www.olidenreformas.com

Fotakiek
Telatuzak
Etxebizitzak
(Sukaleak, bainuziak)
Indusrien mantenimendua
Mota guztietako igelberotza lanak
Etxebizitzaren inspezio teknikoa (ITE)
Zertifikatu energetikoa
Fotobaten diseinua eta aholkularitza
Etxebizitzaren barne diseinua
Mota guztietako proiektuak



OSKARBI KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaltz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Korta Induristegia, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 88 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com - e-mail: ostola@ostolaza.com

Ostolaza altzariak

Tel/Fax: 943 86 13 25
Julio Beotxe Ibilakia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



943 247 011
www.laprimaverapizzeria.com

TXIMISTA garagardotegia

Ogitortekak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (Kodilloak)
Saltxitzak, oillaskak...
Garagardak aukeran

Ondartxo plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com



handi horiek indar handiegia dute eta haien kontra ezin da ezer egin. Baina gero jaungoikoaren esku geratuko dira”.

Al Qaeda, Daesh edo beste taldeek egindako ekintzen ondorioz, islamofobiak etengabe egin du gora Mendebaldeko herrialdeetan. Halakorik bizi izan duzu hemen?

Nik nire bidea erabaki nuen eta besteena errespetatzen dut. Egin ezazu nahi duzuna zure bizitzarekin. Baina nirea errespetatzen ez baduzu, niregana zaunkaka etortzen bazara, nik defendatu beharra daukat. *Yihad* hitzak defentsa esan nahi du, ez eraso. Beste guztia politika da. Hango egoera hona ekarri nahi dute, beraien *yihada* mundu guztira zabaltzeko nahi dute. Profeta kristauekin eta juduekin bizi zen. Hark zioen ezin zela inor behartu sinestera. Hori ezin daiteke. Norberak barruan eduki behar du sinesmena. Hori zioen profetak.

“Ni hemen jaioa naiz, hemen bizi naiz, baina nire gorpuak ezin du hemen geratu”

Baina horixe da erlijioek historian zehar egin dutena, jendea haien fedea praktikatzera behartu. Ez musulmanek bakarrik, baita kristauak ere, eta oraintxe bertan juduek Israelen ere bai.

Garai ilunak izan dira eta ez dakit oraintxe bertan ez gauden beste batean. Nork daki zer etorkizun izango dugun? Nork daki zer gertatzen ari den orain? Balioak non daude gaurko egunean? Zer ekarri du modernizazioak? Izugarritzko arriskuak! Islamofobia izango da, baina pobreekin. Aberats bat etortzen bada bere kotxe handiarekin, harekiko islamofobiarik edo arrazakeriarik ez dago.

Zumaiako meskitak aurten beteko ditu hiru urte. Ramadan baten ondoren zabaldu zutela du gogoan Iñakik. Nahiz eta hasieran, ezjakintasunagatik edo, meskitaren aurkako hitz batzuk entzun ziren, Zumaiako gizartean nahiko integratuta sumatzen dugu kanpotik. Hala al da? “Umeek dute erraza integratzea. Haiek badakite euskaraz, lagunak dituzte, eskola berean dabilta. Baina, hemengo hizketa ohiturak ez dituztenek ez dute hain erraza. Ez dago egoteko tokirik, tabernak ez badira”. Musulmanek beste arazo batzuek dituztela ere gaineratzen du. “Ni hemen jaioa naiz, hemen bizi naiz, baina nire gorpuak ezin du hemen geratu. Nik, musulman bezala, hilerri musulmana behar dut. Deustun badago bat, baina pribatua da, bazkideentzat da. Guretzat ez dago hilerririk. Hemendik kanpor eraman behar dira gorpuak, hilerri musulmanak dauden lekuetara”.

Ikusita gero eta musulman gehiago bizi dela hemen, ez al duzue aukerarik halako hilerri bat izateko?

Eskaera egin da, baina... Azpeitiko musulmanek lokal bat eskatu zuten beraien errezoetarako. 6-7 hilabete pasa dira eskaera egin zutenetik eta alkateak oraindik ez ditu hartu. Azkoitia iskanbila handiak izan dira meskita bat jartzeko asmoa zegoelako. Fama txarra dugu; telebistan nahiko irudi txarra ematen dute. Ez da esaten musulmana izatea zer den, nolakoa den. Testuingurutik ateratzen dituzte gauzak. Atzetik hori nahi duten eskuak daudela esango nuke. ■

Javier **SOLAS**
ALBAITARIA

“Animalia exotikoen gaixotasun asko oraindik ezezagunak dira guretzat”

Zientzia eta biologiako gaiak betidanik atsegin izan ditu Javier Solas albaitariak. Umetan baina, dinosaurioekin zegoen liluratuta eta paleontologo izan nahi zuen. Azkenean, Albaitaritzako ikasketen aldeko hautua egin zuen eta Zaragozara joan zen. Animalia exotikoen espezialista da, nahiz eta hiru txakur eta lurreko dortoka batekin bizi den. “Zumaian etxekeekin bizi nintzenean ordea, oso animalia ezberdinak izan nituen: hamsterra, kanarioa, kitorra, musker berdea, eskorpioia, arrabioa (salamandra) eta arrainak”, gogoratu du.

TESTUA: IZASKUN URBIETA ESNAL

Animaliekiko ongizatearen ardura handitu egin dela aipatu du Javier Solas albaitariak. Egun Zaragozako animalientzako larrialdi klinika batean ari da lanean.

Zaragozara joan zinen ikastera. Zer moduzkoa izan zen esperientzia?

Albaitaritzari dagokionez, Zaragozako fakultatea prestigioduna da eta Zumaiaetik nahiko gertu dago. Gainera, senide batzuk han bizi dira; beraz, nire destinoa hau izatea erabaki nuen. Aldaketa handia izan zen. Kostako herri txiki batean bizitzetik, zure betiko lagunekin eta etxekeekin, hiri handi batera joateak aldaketa dakar. Lehenengo bi urteak ikasle egoitza batean pasa nituen, eta ondorengo urteetan ikasle pisu batean izan nintzen. Hiriak ongi hartu ninduen eta bertako jendea atsegina eta irekia da.

Nolako ikasketa lerroa du Albaitaritzak?

Albaitaritza fakultate gehienak lerro hauetarako zuzenduta daude: etxeke txikiak (txakurrak eta katuak), animalia handiak (produktzio animaliak eta zaldiak) eta elikadura osasuna. Medikuntzaren zatia batez ere txakurren eta katuengan oinarrituta dago. Ikerketa gehienak alor horretan daude eginak eta aurrerapen gehienak ere

bai. Apenas dauden animalia exotikoen inguruko irakasgaiak, eta horiei buruz zerbait ikasteko praktikak egin behar dira kliniketan, edo unibertsitateaz gaindiko kurtsoak egin.

Zer egin zenuen ikasketak amaitutakoan?

Albaitaritzaren arazoa da ikasketak planteatuta dauden moduan praktika gutxi daudela, eta, horren ondorioz, ikasketak amaitutakoan titulua eduki bai, baina ez dakigula albaitari lan egiten. Hori zela eta, ikasketak amaitutakoan, Zaragozako Albaitaritza Unibertsitate Ospitalean bi urteko internatu bat egin nuen. Urte oso intentsuak izan ziren, oso praktikoak, eta bakarrik zentratuta medikuntzan eta animalia txikien kirurgian.

Noiz espezializatu zinen animalia exotikoen albaitaritzan?

2011n internatua amaitu ondoren, Madrilén aurkitu nuen lana. Animalia exotikoen inguruan ezagutzak zituen norbait behar zuten. Nik ez nuen asko, baina bai gaiarekiko interes handia eta formazioa jasotzeko nahia. Hori zela eta, animalia exotikoen medikuntzari buruzko kurtso

batzuk ikasten hasi nintzen. Ondoren etorri ziren albaitaritzako kongresuak, hainbat klinikatan egonaldiak eta ia z mas- ter bat ere egin nuen.

“Animalia exotikoen inguruko medikuntza ez dago txakurrena bezain aurreratua”

“Daramagun
bizitza ereduak
askotan maskota
bat ekartzea
lehenesten du
ume bat izatea
baino. Baina zein
maskota?”

ELKARRIZKETA





Zergatik espezializatu zara animalia hauetan?

Lehen esan dudan moduan, orain arte inoiz ez nuen izan txakur edo katurik, baina bai beste hainbat animalia ez hain ohikoak, eta horiei buruzko ezagutza handitu nahi nuen. Horretaz gain, animaliekiko pasio handia daukat.

Beste animaliekiko zer ezberdintasun daude?

Ezberdintasun handiena da oso ezagutza gutxi dagoela hauei buruz. Animalia horien inguruko medikuntza ez dago txakurrena bezain arreratu, adibidez. Gainera, eragozpen horri batu behar zaio oso animalia txikiak izan ohi direla eta beraien jatorriagatik ez dutela gaixotasun sintomarik azaleratzen.

Zein da albaitari baten eta bereziki animalia exotikoen albaitariaren lana?

Albaitari baten lana oso zabala da; izan ere, hainbat alor hartzen ditu: animalia txikien medikuntza, ganaduen produkzioa, zaldien medikuntza, animalia exotikoak eta basatiak, elikadura eta osasuna (osasun inspekzioak, hiltokiak...). Animalia exotikoen kasuan, lan gehiena ematen duena da arazoa edo gaixotasuna identifikatzea, eta horren ondorioz, tratamendu egokia aplikatzea. Zaindu behar den beste alorra izaten da animalia exotikoak dituen jabea-ri horiek nola zaindu behar dituen informatzea. Amaitzeko, patologiak azaldu aurretik, errebisioak eta osasun kontrolak eramatea ere guri ardura da.

“Kontzientzia handiagoa dago eta jabeak animalia- ren bizitokia eta elikadura jatorriko lekura egokitzen saiatzen dira”

Albaitari espezifiko hauen eskari handia dago?

Ez dago eskari handiegirik, baina pixkanaka handitzen ari da. Gero eta jende gehiagok ditu animalia exotikoak, eta, horren ondorioz, gero eta ezagutza handiagoa dago horien biologia eta medikuntza alorrean.

Nola erabiltzen dira animalia hauek? Maskota gisa, edo beste zerbaiterako erabiltzen dira?

Gehienak konpainiako animalia moduan erabiltzen dira. Beste batzuk, berriz, hazteko erabiltzen dira, eta ondoren maskota bezala saltzen dituzte. Frantzian, esaterako, animalia exotikoek izen berria hartzen ari dira: konpainiako animalia berriak.

Madrilan izan zinen lanean eta orain Zaragozan zaude berriro ere. Animalia hauen merkatua handia da? Zein da errealitatea?

Errealitatea da bi fenomeno ari direla gertatzen. Alde bate-rik, daramagun bizitza ereduak askotan maskota bat ekar- tzea lehenesten du ume bat izatea baino. Baina galdera da: zein maskota? Egun, exotikoen alde dago balantza; izan ere, txakur batek baino arreta txikiagoa eskatzen dute. Beste alde-rik, maskota baten gaineko zainketan kontzientziazio gehia- go dago, eta horrek ekarri du animalia exotikoekin albaitaria- rengana gero eta jende gehiago etortzea. Lehen pentsaezina zen hamster bat gaixotuz gero jabeak albaitariarengana era- matea. Gaur egun, 60 gramoko hamster bat ohiko bezeroa da.

Zein dira animalia exotikoak?

Animalia exotikoen barruan konpainiako animaliak sartzen dira, txakurrak eta katuak kenduta. Klasikoenak untxiak eta huroiak dira; akuri, txintxilla, arratoi eta hamsterrekin batera, ugaztun txikietan sartzen dira. Talde horretan eze- zagunagoak dira jerboak, urtxintxak, trikuak eta surikatak.

Gero, hegaztiak daude, batez ere psita- zidak: perikitoak, ninfak, guakamaioak edo paseriformeak diren kanarioak eta diamanteak. Narrastien taldean, berriz, ohikoenak, uretako eta lurreko dortokak dira, iguanak, bizardun dragoiak eta po- zoirik gabeko sugeak. Normalean aten- ditzen ditugun beste animalia batzuk dira pinipig izena duten txerriak eta Titi ize- neko tximuak.

Zein da animalia hauek duten arazo edo gaixotasun ohikoenak?

Oraindik gaixotasun asko ezezagunak dira guretzat, baina ezagutzen ditugun gaixotasunen % 80 jabeak behar bezala ez erabiltzeagatik dira: bitaminen edo nu- trienteen gabezia edo elikadura ezegokia- gatik. Infekzio-gaixotasunak ere agertzen

dira, batez ere egokiak ez diren hezetasun maila edo beroa izaten dutelako. Narrastien gaixotasunek, esaterako, hainbat faktore dituzte oinarri: terrarioaren tenperatura desegokia, dieta desorekatua eta bitamina falta, adibidez.

Ohituta al gaude animalia horietara? Eta beraiek zer moduz bizi dira gure artean?

Arazoa da lehen animalia horiek kaiola edo terrario batean edukitzen zirela eta txori denda edo merkatuetan saltzen ziren janariekin elikatzen zirela. Gainera, hiltzen baziren, beste bat jarri eta kito. Orain kontzientzia handiagoa dago eta jabeak animalia biziak bizitoki eta elikadura jatorriko lekura egokitzen saiatzen dira. Horrek animalia zoriontsuagoa, osasuntsuagoa eta bizi kalitate hoberekin bizitzea dakar. Gainera, jabeak gehiago disfrutatzen du.

Nolako jendeak izaten ditu animalia horiek?

Hainbat talde daude. Alde batetik, umeak ditugu. Orokorrean gurasoek oparitzen dizkiete animalia exotikoak: normalean, ugaztun txikiak izaten dira, untxia eta hamsterra, adibidez. Beste alde batetik, hor daude txakur bat erosi beharrean animalia mota hauek erosten dituzten pertsonak, bikoteak, familiak. Ez dute animalia askorik ezagutzen, baina albaitariarengana etortzen dira informatzera eta beharrezko azterketak pasatzera. Amaitzeko, animalia exotiko konkretu bat gustatzen zaien pertsonak daude eta horiek ere sarri-sarri joaten dira albaitariarengana. Jabe horiek berezia-goak izaten dira.

“Maskota batek ez du kapritxo bat izan behar”

Animalia exotikoen trafikoa handia dago?

Justizia eta erakundeak gero eta gogorrago ari dira ipintzen gai honen inguruan. Egia esan, gero eta animalia gutxiago ikusten ditugu zalantza jatorriarekin. Aipatu behar da, noski, jabe horiek albaitariarengana ez etortzen saiatzen direla. Gaur egun, kontrol gehiago daude eta behartuta daude animalia identifikatua izatera.

Zein iritzi duzu animalien tratua txarren inguruan edo abandonatuta uzten dutenen inguruan?

Arazoa bukatu egin beharko litzateke, baina uste dut garrantzitsuagoa dela tratua txarren eragileak salatu beharrean arazoa

oinarritik lantzea, hau da, hezkuntza bidez. Maskota batek ez du kapritxo bat izan behar. Bizidunak dira eta guretzat hartzen ditugun momentutik gure babesa eta ardurapean daude. Horrek denbora eta gastu ekonomikoa dakar. Horregatik, animalia bat izan aurretik beharrezko informazioa jaso behar da, eta bakoitzaren bizitzara hobeto egokituko dena bilatu.

Zer gaitasun izan behar ditu albaitari batek?

Etengabeko formakuntzan egon behar du; izan ere, arlo honetan aurrerapen asko gertatzen dira. Horretaz gain, arduratsua izan behar du eta batez ere bere mugak ezagutu behar ditu. Arazo baten aurrean ez badaki nola jokatu, beste lankide bati lan egiten utzi behar zaio. ■



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina

• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

EKAINA-UZTAILA

DEIALDIAK

Ekainean zehar

Nagusiekin Nagusientzat (Nagusien Astea). Argibideak Brankan, 943862200

Uztailak 3ra arte

Txuri-beltzeko argazki lehiaketa.

Gaia: Arkitektura. Argibideak Alondegian 943861056

Ekaina-uztaila

7ko futbol eta areto futbol txapelketak.

Ekainak 9-11

Alai auzoko jaiak

Ekainak 12-17

Merkataritza astea

Ekainak 28 - uztailak 2

Sanpedroak

ERAKUSKETAK

Oxford aretoan

Ekainak 7-20 Forondako pintura tailerreko lanak

Ekainak 22-uztailak 9 Xabier Irureta

EKAINA

9, ostirala

19:00 Beheko plazan Ludotekako festa.

21:00 Munduari jira eta 2ra

22:00 Oxford aretoan kontzertua: Jaber Muguruza + Mikel Azpiroz, Tonetti anaiak

11, igandea

12:00 Alondegian 89 urte beteko dituztenei omenaldia

12:00 Zumaia-Sakoneta-Zumaia piragua zeharkaldia

14, asteazkena

18:30 Odietan Musika Eskolako dantza emanaldia

19:00 Oxford aretoan

hitzaldia: El nuevo derecho vasco de herencias, Juanjo Álvarez

16, ostirala

19:30 Oxford aretoan hitzaldia: Picassoren Gernika, argiak eta itzalak, Ismael Manterola

17, larunbata

Bizikleta Eguna: egun osoan, bizikletaren inguruko jarduerak

Gau Zuria, Zumaia Merkataritza Elkartek antolatuta

19, astelehena

18:00 Oikian Musika Eskolaren jaialdia

20, asteartea

19:00 Odieta Pilota Luzea erakustaldia

22, osteguna

19:00 Maria eta Josen Musika Eskolaren ikasturte bukaerako jaialdia

23, ostirala

19:00 Oxford Flysch Trail hitzaldia: Juanito Oiarzabal
22:00 Sanjuaniturrin San Juan gaua jarraian Gernika parkean Eki Gaua



DEABRU BELTZAK ARGAZKIA: DONOSTIAKULTURA.EUS

24, larunbata

16:30 Erriberan Auto klasiko eta kirolekoen nazioarteko rallya
17:30 Oxford Flysch Trail hitzaldia + briefing

20:30 Mari kalean kontzertua: San Pedro abesbatza

25, igandea

08:30 IX. Flysch Trail mendi lasterketa

26, astelehena

19:00 Oxford aretoan, Jon Maiaren Berriak jaio ginen liburuaren aurkezpena, Zumaia bertsos eskolak antolatuta.

28, asteazkenetik

San Pedro jaiak

30, ostirala

Aitzuri pilotalekuan Pilota partidu profesionalak

UZTAILA

1, larunbata

Lubaki kiroldegian Boxeo jaialdia

2, igandea

11:00-14:00 + 17:00 -20:00 Eusebio Gurrutxaga plazan Artisanu Azoka

7tik 10era:

Narrondoko jaiak

15, larunbata

23:00 Odietan hasita perkusio eta argi kalejira: Deabru Beltzak

22, larunbata

22:30 Aitzurin kontzertua: Benito Lertxundi

Zalla
• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak
Urte Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com
BASO 12
20750 ZUMAIA
Tel. 943861018 / Fax. 943016125

Zumaia Hotela
Jateketa
Kafetegia
Abai auzlegia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

EuroTaller
ZUMAIA MOTOR, S.L.
José Rey Alfaro
Gerente
Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiaimotor@telefonica.net

EDU
ZUMAIA
OPTICA
RPS 18/16

Txomin Agirre kalea 6,
750 Zumaia, Gipuzkoa
T. 943.143.057
www.eduoptika.com

MERKATARITZAREN ASTEA

☆☆☆ ZUMAIA ☆☆☆

EKAINAK 12-17

100€-KO 10 TXARTELEN ZOZKETA

40€-REKIN 50€-KO TXARTELA EROSI
TURISMO BULEGOAN EKAINAREN 17RA ARTE



Zumaia Udalak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MENDIALTZA
ETA KORTALAN
DEPARTAMENTU DE TURISMO,
COMERCIO Y OMBRADO




EKAINEAN

Zumaia Txartela erabilita

5, 10, 20 edo 50 €-ko
sariak lor ditzakezu!



Zumaia Udalak





basquestay

A l o k a i r u T u r i s t i k o a k

Zure etxebizitza alokatu nahi baduzu,
guk erraztuko dizkizugu lanak.

Bezeroari giltza eman, apartamendua garbitu...
Bulego berria daukagu Zumaian, Etxezarreta kalean.

Informazio gehiago:

Tel. 606 747 756
info@basquestay.com
www.basquestay.com